

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Portugaleteko Udala****Portugaleten boluntariotza sustatzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia onetsi**

Portugaleteko alkateak 2020ko maiatzaren 29an eman zuen dekretuaren bidez onetsi zuen Portugaleten boluntariotza sustatzeko dirulaguntzen 2020ko deialdia, artikulua hauexek diotenarekin bat etorritz:

1. artikulua. — Xedea

Portugaleteko Udalak dei egiten du jarduera Portugaleten burutzen duten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek dirulaguntzak eska ditzaten, Portugaleten boluntariotza eta gizartean esku-hartzeko eremuan elkartegintza eta parte-hartzea sustatu eta indartzeko ekintzak burutzeko.

Hona hemen dirulaguntza hauen lerroak:

- a) Boluntariotza sustatzeko proiektuetarako dirulaguntzak, boluntarioak erakarri, sentsibilizatu, hedatu, fidelizatu eta prestatu eta elkarleen antolamendua eta egitura indartzeko proiektuek izan behar dutelarik.
- b) Portugaleten Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioa bultzatzeko egitasmoetarako dirulaguntzak. Egitasmoak zehatz-mehatz oinarri izan behar dituzte ikaskuntzari eta zerbitzuari buruzko alderdiak. Horren kariaz, parte-hartzaileek egitasmoa burutzean nola parte hartzen duten deskribatu behar dute beharrak antzeman, egitasmoa diseinatu, burutu baita azken ebaluazioa egiteko orduan ere.

2. artikulua. — Entitate onuradunak

Onuradunak izan ahalko dira eta beraz, dirulaguntza hauen eskatzaileak izango dira betekizunok betetzen dituzten entitate pribatu guztiak:

- Irabazi-asmorik gabeko entitateak izatea.
- Portugaleten egoitza soziala edo ordezkaritza izatea edo Portugaleten presentzia aktiboa izatea. Izan ere, presentzia aktibotzat ulertuko da boluntariotza arloan lan jarraitua eta proiektuak nahiz jarduerak Portugaleten egitea dirulaguntza hauen deialdia baino lehenago.
- Boluntariotza Portugaleten sustatzeko diruz lagunduak izatea nahi duten jarduerak Portugaleten egitea.
- Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan agertutako betekizunet gain, ondoko hauek ere betetzea:
 - 1) Gizarte Segurantzarekin tributu-beharrak, indarreko xehapenek ezarritakoak, ordainduta izatea.
 - 2) Portugaleteko Udalarekin dirulaguntzak itzuli behar izateagatiko ordainketak egunean edukitzea.

3. artikulua. — Arauak

Deialdi honen arauak boluntariotza Portugaleten sustatzeko dirulaguntzen oinarri-arauak dira, Portugaleteko Udaltzat 2018ko ekainaren 28an eginiko ohiko bilkuran onetsiak. Arauok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2018ko abuztuaren 1eko, 147. zk.) argitaratu ziren.

4. artikulua. — Eskerak noiz eta non egin

1. Eskerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita hilabetekoa izango da.
2. Diruz lagundu daitezkeen jardueren epea deialdi honen ekitaldikoa da.



3. Eskaerak eta nahitaezko agiriak inprimaki-ereduaren arabera (I. eranskina) aurkeztuko dira leku hauetan:

- Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza z. g.) goizez 8:00etatik 14:00etara.
- Herritarrentzako Informazio eta Harrera Bulegoan (San Roke plaza z. g.) arratsaldez 15:00etatik 20:15era eta larunbatetan 9:30etik 13:45era.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak aurreikusitako edozeinetan.

5. artikulua. — Zenbatekoa

Aurrekontuko kreditu erabilgarria hogeita zazpi mila eurokoa da (27.000 euro), indarreko aurrekontuaren 01.9240.481.01 diru-sailaren kargura.

Portugaleten, 2020ko ekainaren 4an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo